

UDALAREN KUDEAKETA-MEMORIA

UDAL-ALORRAK

HERRITARREN SEGURTASUNA

Herritarren Segurtasuneko Alorraren ardura herritarrek eskubideak zein askatasunak baliatzeari babesa ematea da, bai eta herritarren segurtasuna bermatzea ere, elkarbizitza baketsuaren alde eginik eta pertsonak zein haien ondasunak babestuta, betiere legeekin bat. Halaber, gerta daitezkeen larrialdi-egoeren ondorioei aurre egiten die, eta horiek gutxiagotzen ditu.





Antolamendua

2012an, Iruñeko Udaltzaingoaren Plan Zuzentzailea 2011-2015 idatzi zen eta, abenduaren 11z geroztik, policiamunicipal.pamplona.es web espezializatua jarri zen abian. Webguneak aukera ematen die herritarrei udaltzaingoarekin harreman zuzenagoa izateko, trafiko-kamerak ikusteko, Alde Urdinerako bizilagun-txartela ateratzeko, isunak ordaintzeko eta kexak eta iradokizunak egiteko. Abenduan bakarrik webguneak 1.544 bisita jaso zituen; 73, eguneko. Ildo horren beraren barruan, Udaltzaingoa aldian behin biltzen da hiriko establezimenduekin, 092 telefonoaren bidezko harreman-sistema indarrean dagoela gogorarazteko.

Otsailean, Bide Segurtasunerako hirugarren Plana aurkeztu zen. 2015era arteko jarduketak aurreikusi ditu, 13 lan-ildotan eta 40 jarduketa-proposamen diseinatu dira. Hona helburua: iruindarrik edo bisitaririk ez hiltzea edo zauri larriak ez izatea, hirian barna egiten diren joan-etorrien ondorioz. 2012ko abuztuak erronka berezi bat ekarri zuen Iruñera alor honetarako: Espainiako Txirrindularitza Itzuliaren atariko etaparen eta biharamuneko irteeraren trafiko-operatiboa antolatzea.

2012an, gainera, Iruñeko Udaltzaingoaren Erregelamendua aldatzea onetsi zen, sindikatueta ordezkariekin egindako negoziazioaren bidez, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean izaniko aldaketetara moldatzeko. Tokiko Gobernu Batzarrak Erregelamendua onetsi zuen eta maiatzaren 31n argitaratu zen. Artetik esateko, Udaltzaingoa, maiatzean, zilarrezko domina bat irabazi zuen Espainiako Polizien eta Suhiltzaileen IX. Txirrindularitza Txapelketan; ekainean, ordea, Tokiko Poliziak X. Mus Txapelketa galdu zuen Erruki Etxeko adinekoen taldearen aurka.

Herritarren Segurtasuneko Alorrak lurzoru publikoa edo pribatua okupatzen duten **terrazak eta bestelako elementuak jartzea arautzen duen Ordenantza** erredaktatzeari ekin zion 2012an. Ordenantza 2012ko azaroaren 16ko Osoko Bilkuran onetsi eta 2013ko urtarrilean sartu zen indarrean.

Uztailaren 16an, **Herritarren Segurtasuneko Alorraren zuzendaritza aldatu zen**, eta Patxi Fernández Elizaldek Alberto Margallo Lanari utzi zion lekukoa, zeinak jada ardura-karguak bete baititu Iruñeko Udalean (Aurrekontu Antolamenduko

Baimendutako jarduerak	2008	2009	2010	2011	2012
Kirol-jarduerak	40	39	45	52	38
Eskeko mahaiak eta mahai informatiboak	33	20	32	30	44
Kultur jarduerak	21	21	8	3	26
Erakusketak eta publizitate-kanpainak	19	22	13	14	15
Informazio- eta publizitate-autobusak	31	37	47	29	31
Merkataritza-jarduerak	21	16	22	25	36
Festa-ekitaldiak	127	137	145	200	208
Desfileak	54	59	60	66	55
Filmaketak	14	10	12	6	13
Auzoetako festak	12	12	12	10	12
Askotariko baimenak	52	42	40	32	72
Terrazak	31	39	52	177	73
Sanferminetan	95	101	82	83	91
GUZTIRA	550	555	570	727	714

teknikaria 1999an, eta Hirigintza Gerentziako kudeatzailea 2000tik 2003ra) eta Nafarroako Gobernuan (Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria eta Nafarroako Lan Osasunerako Institutuko kudeatzailea).

Eremu publikoaren kudeaketa

Jarduerak eremu publikoan

2012. urtean, guztira, 727 jarduera baimendu ziren eremu publikoan, hau da, 2011. urteko kopuruaren antzera. Horrek erakusten du jardun handia dagoela Iruñeko kaleetan, urte osoan zehar. Baimena eman aurretik, gainerako auzoei erasaten ez dietela baieztatzen da, edo, bestela, erasanak ahalik eta txikiak izan daitezen behar diren neurriak exijitzen dira. Eremu publikoan jarduerak egin dituzten entitateak, pertsonak eta elkarteak oro legearen arabera eratuak dira, aldeztu aurretik, eta izena emana dute Ikuskizun eta Josteta Jardueretarako Enpresen Erregistroan.

Jardueren adibide bat San Blas eguna da, egun horretan 44 postu jartzen baitira San Nikolas plazan eta San Migel kalean, opilak eta gozoak saltzeko. Beste adibide bat gaztainen salmenta; Udalak 20 kokaleku eskaintzen ditu, gehienak Alde Zaharrean. Horrez gain, Udalak urtero baimenak ematen ditu, Sanferminetan puxikak postu finkoetan eta salmenta ibiltarian saltzeko; baimenak ematen ditu, baita ere, hiriko auzoetan inauteriak ospatzeko eta salmenta-baimenak landabengo azokan, etab.

Terrazak eta elementuak eremu publikoan

173 baimen mantendu eta berriak ziren eremu publikoan terrazak paratzeko; haietatik, 39 terraza mahaidun eta aulkidunak dira; 14, upeldunak, eta 32k mahai altuak dituzte. Gainera, 5 apainketa-elementu baimendu ziren eremu publikoan dendetarako.

Udalbatzaren 2012ko azaroaren 16ko Osoko Bilkurak eremu publikoan terrazak eta ostalaritzari nahiz dendei lotutako beste elementu batzuk jartzea arautzeko Ordenantza onetsi zuen. Ordenantzan eremu publikoa

okupatzeko kasu baimendu guztiak arautzen dira, establezimenduetan erretzearen eraginez azkenaldian ugaritu direnak barne, eta ez bakarrik ostalaritza-establezimenduei lotutakoak, bestelako lokalei dagozkienak ere bai.

Manifestazioak eta elkarretaratzeak

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Alorrek txostena eman du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 2012an, 1.461 ekitaldi izan ziren; gehienak, elkarretaratzeak (1.259). Manifestazioak, berriz, 202 izan ziren.

Sanferminak

Feria-lekua, bosgarren urtez jarraian, Runa parkean ezarri zen, 30.000 metro koadrotik gorako azalera batean, Arrotxapeko eta Vergel zubien artean. Iruñeko Udalak, Erruki Etxearekin sinatutako hitzarmenaren bidez, entitate horri berorri lagatzen dio Runa parkearen erabilera, feria-atrakzioak 2012tik 2032ra bitarte paratzeko. 2012an, guztira, **75 atrakzio** muntatu ziren, eta Europako noria-behatokirik altuena (70 metro) nabarmendu zen.

Aurreko urteetan bezala, kalean ere **salmentarako postu** finkoak baimendu ziren. Zehazki, 160 postu Taconeran; 7, Bigarren Zabalguneke hainbat tokitan, eta 5, San Nikolas plazan. Gainera, 4.000 m²-tan baino gehiagoan handitu zen eremu publikoan **festari eskainitako aldea**, betiere kontuan hartu gabe Antoniutti parkeko barrakak eta eskualde-etxeenak, horiek ere baimendu baitziren. Hauek, zehazki: 8 terraza handitzea, 9 terraza karparekin, 4 terraza barrarekin (Jito Alai barne), 5 gune mahaitxoekin eta barrarekin (Erriberri kalearen inguruan) eta 6 olana-karpa (Labrit kalean), ahaztu gabe Ikastolen Elkarteak Taconeran jarritako txosna eta Foruen plazan ezarritakoa.





2012an, lasterkarien artean egindako 350 inkesten emaitzen berri eman zitzaion Sanferminetako Mahai Bereziari (2008an sortua). Inkestak, hain zuzen, Iruñeko Udaleko babes zibileko laguntzaileek jaietan egin zituzten. Lasterkarien % 60 atzerritarrak dira, eta % 8 bakarrik dira emakumezkoak; lasterkarien % 81ek lagunekin parte hartzen du entzierroan, eta % 19k soilik egiten du bakarka.

Parte-hartzaile gehienek, % 63k, diote lasterketa aurretik lo egin dutela, lasterketako arauak ezagutzen dituztela eta ohartzen direla arriskua hilgarria izan daitekeela.

Inkestatuen arteko lasterketa-tarterik ohikoenak hauek dira: Santo Domingo (% 28,8) eta Udaletxe plaza-Mercaderes (% 30); ia % 20k Estafeta hasiera aukeratzen du, eta % 21,2k *Telefonica* kailejoia tartea.

2012an, Udalbatza, alkatea buru izan zela, **Bezperetarako Martxaren ospakizuna** (Riau-riau esaten zaiona) **berreskuratzen** saiatu zen, jai egitarauaren ekitaldi ofizial gisa. Tradizioa 1914an sortu zen, 1991n bertan behera utzi eta 1996an saiatu zen berreskuratzen; arrakastarik gabe, ordea. 2012an ere ez zen egiterik egin. Udalbatza ez zen Udaletxetik atera, martxaren hasieran izaniko istiluek eragotzita.

Udalaren ahaleginak jarraipena izan zuen, iaz ere, entzierroan arropa zuria nagusi izan dadin eta jaiak garbiagoa izan dadin. **Aparkatze Arautuko Eremua jaietan** mantentzeko azterlana hasi zen 2012an. Horrela, Donibane, Iturrama eta Ermitagañako kaleetako albo eta erdibitzaileetako aparkatze-salbuespenen azterketari ekin zitzaion, eta disuasiozko aparkaleku berriak, erdigunetik urrutiago daudenak, jorratzen hasi ziren.

Bestalde, Entzierroaren Monumentu inguruko hesiak kendu ziren eta, haien ordeaz, hiru xafila jarri ziren, monumentura igotzea debekatua dagoela gogorarazteko. Rafael Huertak 2008an egina, Karlos III.aren etorbidean dago, Orreaga etorbidearen izkinan, eta hesiz inguratua zegoen, kalterik eta istripurik ez izateko.

Ganadu-feriak

Sanferminetako zaldi-aziendaren feria Iruñeko Agustindarren industrialdean dagoen 14.300 metro koadroko lursail batean egin zen, baina ez hilaren 7an, 10ean baizik. 207 ukuilu jarri ziren, bai eta bi zirga ere, lotu gabeko azienda lotzeko. Sanferminetako feria Espainiaren iparraldeko ganadu-feriarik garrantzitsuenetakoa da eta zaldi-aziendakoa da soilik, hau da, zaldi-behor, zaldiko-behoka, asto eta mandoei, beste espezie batzuen artean.

Lasterkarien adin-tartea

18tik 35 urtera.
36tik 55 urtera
55 urte baino gehiago

Parte-hartzaileen ehunekoa lasterketan

% 80
% 19
% 1

Lasterkarien jatorria

Espainia
AEB
Australia eta Zeelanda Berria
BH
Hegoamerika
Frantzia
Bertze jatorri batzuk

Parte-hartzearen ehunekoa lasterketan

% 40
% 22,5
% 13
% 6,3
% 2
% 1,1
% 15

	2008	2009	2010	2011	2012
Abelburuak, San Fermin ferian	1114	1312	801	981	790
Abelburuak, San Migel ferian	747	770	208	510	372
	2008	2009	2010	2011	2012
San Fermin ferian zenbatetsitako kostua	20.426 €	25.281 €	16.889 €	17.000 €	15.200
San Migel ferian zenbatetsitako kostua	15.285 €	10.028 €	8.455 €	8.300 €	7.800
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	3.725 €	-	-	-	

Urteko bigarren ganadu-feria Sanmigeletakoa da, irailaren 29an egiten dena, hori ere Iruñeko Agustindarren industrialdean. Udalak, 122 ukuilu prestatu zituen.

Landabengo azoka

Beste urte batez ere, **Landabengo azokak** jardunean jarraitu zuen. Guztira, 177 salpostu ipini ziren (184, 2011n), beste horrenbeste titularri esleituta: 73 postu, produktu jangarrien eremuan jarri ziren, eta 104, jangarriak ez diren produktuak saltzeko izan ziren.

Azoka hau igandero dago zabalik urte osoan, uztailen eta abuztuan izan ezik, eta zabalik egoten da goizeko 9etatik eguerdiko ordu biak arte. Elikagaiak eta ehunak jartzen dira salgai, eta ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Igandero, 10.000 lagun inguru joaten dira Landabengo industrialdera azokan erosketak egiteko. Inguru trafikorako itxia egoten da goiz osoa.

Objektu galduek

TGehienak, polizia-zerbitzuek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzaren arloko beste entitateek –hipermerkatuek, kasu– entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira, eta langileak jabeak

aurkitzen saiatzen dira.

2012an, guztira, 6.713 objektu erregistratu ziren; 2011n, berriz, 6.905. Jabeek 3.262 itzuli zitzaizkien (3.378, aurreko urtean).

Larrialdietarako plangintza

- Uholdeei aurre egiteko plana

2012an, Iruñeko Udalak Plana ezartzen jarraitu zuen. Arga ibaiaren emaria igotzen denean aktibatzen da Plana. Arrisku-egunetan alerta jotzen da sms bidez, eta mezua Uholdeei aurre egiteko Planaren abisuzerbitzuan alta emanda dauden auzokide guztiei bidaltzen zaie.. Zerbitzua 2009an jarri zen abian eta 1.200 erabiltzaile inguru ditu; gehienak, Arrotxapeko, Sanduzelaiko eta Txantreako auzokideak. Sistema horrek baimena ematen dio Udalari alertak eta abisuak heritarren sakelako telefonoetara bidaltzeko, SMS masiboen bidez.

- Sanferminetarako Babes Zibileko Plana

Sanfermin Planak entzierrorako, su artifizialetarako eta festen programako gainerako ekitaldietarako segurtasun-antolamendua eta zirkulazio-etenak, sorospen zirkunstantzialak eta beste hainbat hartzen ditu barne.





2011n bezala, Babes Zibileko Toki Batzordeak Txupinazora beirazko ontziak sartzea debekatu zuen. 2012ko Sanferminetarako, Babes Zibileko 97 laguntzaile kontratatu ziren, naranjitoak deritzetenak. Kontratazioa 2011n egindako deialdian gainditutakoen zerrenden bidez egin zen.

- Elurretako Plana

Izotzetako eta elurretako planak baliabide guztiak koordinatzen ditu, klimatologia-baldintzek hiriaren funtzionamenduan ahalik eta eraginik txikiena izan dezaten. Trinitarios aldeko gatz-biltegian bi silo daude, 100na tonakoak, eta horrez gain, 350 tona gatz solte eta 20 tona gatz 25 kilogramoko zakuetan gordetzen ditu lokal publikoetan banatzeko (osasun etxeak, ikastetxeak, e.a.). Planari atxikitako ibilgailuek material urgaria erabiltzen dute: 7 kamioi eta 3 lur orotako, elurra kentzeko xaflekin eta gatza barreiatzen dutenak; 6 zisterna, gatzuna botatzeko; 20 makina txiki ongarritzeko; gatza eskuz barreiatzeko 10 makina; 3 kamioi, materiala garraiatzeko eta atzerako hondeamakina bat.

Sarbidea bermatze aldera, Udalak 17 arlotan multzokatuak ditu hiriko galtzadak, ibilgailuak haietan guztietan ari daitezen, errepide nagusien eta aldapen garbiketa bermatze aldera. Hiriko bide nagusiak, gainera, bereziki zaintzen dira. Planean, halaber, osasun-talde bat aurreikusia dago hainbat gaitarako; esaterako, osasun-garraiorako edo izotza edo elurra erortzen denerako, bai eta gizarte-ekintzarako talde bat ere, kalean lo egiten dauden pertsonak antzemateko eta, egoera larria izanez gero, harrera-zentrora edo aterpetxeetara eramateko.

Bide Segurtasuna

Udalak, 2012ko otsailean, **Bide Segurtasuneko III. Plana onetsi zuen, 2015a jomuga** hartuta. Planak zeharkako neurriak ezarri ditu administrazio guztientzat. Atal honetan Herritarren Segurtasuneko Alorrean gauzatutakoak bildu dira. Ekintza aktiboak dira eta beste udal-alor batzuek gauzatzen dituzten jardueren osagarriak dira, hainbat gauza lantzeko: esaterako, seinaleztapena, puntu beltzak kentzea, semaforoak jartzea, etab. Haien guztien helburua da istripuek jende gutxiago kaltezea eta hildakorik izan ez dadin lan egitea.

	2008	2009	2010	2011	2012
Elurra kentzeko makinek zenbat egunetan izan duten esku-hartze nabarmena, zuritu duelako. (Zenbat egunetan, bitartekoak prest egonda ere, ez da esku hartzerik izan)	5 días:	5 días	6 días	5 días	7
Zenbat egunetan gatza erruz banatu behar izan den, 0° C peko tenperatura zegoelako	25	23	16	8	12
Urtean erositako gatza	184	479	600	130	140
Gatz-izakinak, abenduaren 31n	220	320	456	450	500
Gatz-izakinak, abenduaren 31n, 25 kiloko zakuetan (zentro publiko, gune berezi eta garbiketa-enpresa emakidunei banatzeko)	30	60	35	10	20

2012an, 2.273 **istripu** gertatu ziren; beraz, istripu kopurua beheranzko joeran dago. 5 lagun gertatu ziren hilik; 22, larriki zauriturik, eta 653, arinki zauriturik. Istripu gehienak I. eta II. Zabalgunean eta Donibanen gertatu ziren, gehienak ordu-tarte hauetan: 13:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Istripuen % 5,4an txirrindulariak nahasirik egon ziren, 2011ko joerarekin bat.

Istripu gehienak ibilgailuen arteko talkak dira (% 93). Harrapatzeak istripuen % 7 izan ziren; gehienak, semafororik gabeko oinezkoendako pasabideetan.

Istripuak

	2008	2009	2010	2011	2012
	2.786	2.585	2.757	2.557	2.273

Biktimak

	2008	2009	2010	2011	2012
	928	1.008	869	924	680

2012. urtea

Talka istripuak	2.126
Harrapatze-istripuak	147

GUZTIRA

2.273

Kalteak baino ez	1.739
Zaurituekin	529
Hildakoekin	5

GUZTIRA

2.273

Arinak	653
Larriak	22
Hildakoak	5
GUZTIRA	680



2007ko urtariletik aurrera, laguntza- eta jarraipen-baliabide bat eratua dago biktimen eta senitartekoen zerbitzura: **Zirkulazio-istripuen Biktimei** laguntzeko Bulegoa. 2007an, 75 biktima izan ziren, eta 2012an, berriz, 27.



Istripuak, Oinezkoen Harrapaketak Eraginda

Harrapatze-istripuak, guztira					122
Harrapatutako oinezkoak, guztira					151
Erregulatutako pasabidea (berdea)	Erregulatutako pasabidea (gorria, oinezkoentzat)	Erregulatu gabeko pasabidea	Pasabidetik at	Beste zenbait	
5	5	103	15	19	

Oinezkoen harrapaketa

Arinak	122
Larriak	11
Hildakoak	5
GUZTIRA	138

Kolpatutako txirrindulariak

Onik irtendakoak	57
Arinak	66
Larriak	2
Hildakoak	0
GUZTIRA	125

Istripua izandako ziklomotoreak

Onik irtendakoak	37
Arinak	43
Larriak	5
Hildakoak	0
GUZTIRA	85


Bulegoak era pertsonalizatuan eta proaktiboan artatzen ditu lruñean gertatzen diren zirkulazio-istripuen biktimak guztiak, bai larriki zauriturik gertatzen direnak bai hildakoen senitartekoak. Helmuga hauxe da: biktimak bakar bat ere ez dadila abandonatua sentitu edota nora jo jakin gabe, zirkulazio-istripu bat gertatu eta gero.

Bulegoak 30 egunez egiten du jarraipena, baina inguruabar jakin batzuetan, eskainitako laguntzak gehiago irauten du. Hona emaitza: trafiko-istripuetan gertaturiko zaurien gaineko argibide egiazko eta benazkoa, biktimen bilakaera ezagutzea. Horri esker,

biktimen azken sailkapena egin daiteke, eta jakin zer laguntza eta aholku eskaini arlo judizialean, laguntza-arloan, psikologikoan, lan-arloan, e.a.ean. Azken helburua da eskuratzen den informazioak beste istripu batzuk eragozteko balio izatea eta gertatzen diren istripuek pertsonengan ondorio txikiagoak izatea.

Hasi zenetik, guztira 303 kasu sartu dira programa honetan; guztiak ere istripuei dagozkie eta, horren ondorioz, larriki zauritutako edo hilik gertaturiko pertsonak izan dira. Hona hemen kasu horien urteko banaketa:

Guztira izan diren zauritu larriak + hildakoak




Guztira izan diren zauritu larrien + hildakoen kronologia-grafikoa

Datu horiek adierazten dute hiriko zirkulazioan hartutako neurriak fruituak ematen ari direla.

Bestalde, Bulegoan egiten diren azterlan eta analisisen barruan, biktima larrien eta hildakoen tipologia sailkatzen da. Sailkapen hori baliagarria da, biktima bakoitzak zirkulazioan zer zeregin duen jakiteko: hau da, oinezkoak; txirrindulariak edo auto-, motozikleta- edo ziklomotore-gidariak edo -erabiltzaileak.

Biktima larrien + hildakoen sailkapena, zirkulazioan duten zereginaren arabera




Informazio hori aztertzeetik ondorioztatu da oinezkoek osatzen dutela arrisku-talderik handiena hiriko bide-istripuetan (% 59), ehunekoari begira kasu gehien biltzen duen taldea baita. Hurrengo arrisku-taldeak hauek dira: motozikleta- eta ziklomotore-gidariak edo -erabiltzaileak (% 15), eta gero, txirrindularien taldea (% 15).

Azterlaneko arrisku-talderik txikiena turismo-gidariak edo -erabiltzaileak dira; horrek esan nahi du autoek izaten dituzten istripu gehienak arinak direla.

Ondoko grafikoan ageri da zer tokitan gertatu ziren harrapatzeak 2012. urtean.

Oinezkoak. Sailkapena, harrapatze-tokiaren arabera



Aurreko analisi grafikotik ondorioztatu da semaforoz erregulatu gabeko oinezko-pasabideetan izan direla zauritu larriak edo hildakoak gertatu diren harrapatze gehienak (% 62).

Iruñea 2011n atxiki eta lanean jarraitu zuen Hiriburuko Proiektuaren baitan 2012. urtean. Hiri parte-hartzaileek beren lurraldeetako istripuei eta zauritu/hildakoei buruzko datuak partekatzen dituzte





eta, ordainez, egiazko konparatiba bat lortzen dute. Proiektuaren lan-oinarria informatika-programa bat da, eta hiriek hiruhilekoan behin sartzen dute bertan informazioa. Proiektua, hastapenean, Trafiko Zuzendaritza Nagusiko Bide Segurtasunerako Behatokiak babestu zuen, eta orain, berriz, harremanetan ari dira FEMP erakundearekin, aurkezpena egite aldera.

Bide Heziketa

Udaltzaingoak egiten dituen prebentzio-ekintzen artean, Bide Heziketako Programa dago, haurrak eta gazteak bide publikoen erabiltzaile gisa hezteko. Hiriko ikastetxeetan egiten da, non trafiko-aravei eta -seinaleei buruzko oinarritzko ezagutza teorikoak lantzen diren. Ikastetxeek Iruñeko Udalak proposatutako programazioari jarraitu eta modulu osoak aukeratu ahal dituzte, edo bestela hainbat jardura zehatz aukeratu eta berezko programazioa osatu. 17.000tik gora ikaslek parte hartu zuten 2011/2012ko ikasturtean, eta guztira 573 jardura egin ziren.

Heziketa-programaren osagarri, bide-kontzientziazioa sustatzeko beste jardura batzuk ere egiten dira, talde jakinei zuzenduta, hala nola **prestakuntza-prozesuetan dauden helduei** edo minusbaliatuak izateagatik **bereziki zaurgarriak diren taldeei**.

Sentsibilizazio- eta sustapen-jardueren artean, marrazki eta esloganen eskola-lehiaketa da nabarmenezkoa, Mapfre Institutuarekin batera antolatua. 2012an, hamaikagarren edizioa egin zen, eta 13 ikastetxek parte hartu zuten 963 lan aurkeztuta. Lehiaketa Iruñeko Udalak eta MAPFRE Fundazioaren Bide Segurtasuneko Institutuak 2002an sinatutako hitzarmenaren fruitua da. Lehiaketaren xedea da

ikasleak hainbat baliotan hezteko, hala nola errespetu, tolerantzia edota elkartasunean, betiere bide-segurtasunari eta gidarien, oinezkoen eta txirrindularien arteko harremanari aplikatuta.

Era berean, ikastetxeekin batera, **Eskola Bide Seguruak** sortzeko lana egiten da. Hau da, joan-etorriko bideak identifikatzen dira, bizikletaz edo oinez egiteko modukoak, eta bidegurutzak eta errotondak hesitzen dira, ibilbide desagokiak saihesteko. Artetik esateko, **MAPFRE Fundazioaren Bide Segurtasunaren Institutuaren auditoria batek** 2012an esan zuen Iruñeko ikastetxeen inguruen segurtasuna arrazoizkoa dela eta baldintza egokiak dituztela istripurik ez gertatzeko.

Elkarlanean baita, aktiboki hartzen da parte haur-zirkulazioko Polo parkean egiten diren jardueretan, laguntza ematen baita Iruñeko ikastetxeentzat parkean antolatzen diren jardura guztietan. Halaber, espetxe-erakundearekin batera lan egiten da, erkidegoaren onerako lan-programan, epaitegiek bide-segurtasunaren kontrako delituetan ezarritako zigorren betekizunaren kasuetan.

	2007/08ko ikasturtea	2008/09ko ikasturtea	2009/10eko ikasturtea	2010/11ko ikasturtea	2011/12ko ikasturtea
Bide-heziketako jarduerak	661	789	700	664	573
Ikasleak	15.501	20.501	19.574	19.118	17.163

Auto-istripuei aurea hartzea

- Alkoholemia- eta droga-kontrolak

Udaltzaingoa **etilometriak** egiteaz arduratzen da. 2012an, 8.595egin zituen. 7.653 ohiko kontrolen barrukoak izan ziren, eta azken horien kasuan, ausaz aukeratutako gidarien % 4,2k positibo eman zuen. Arau-hausteen ondotik egindako 379 alkoholemien % 90ek positibo jo zuen. Auto-istripuetan egindako 563etatik, % 19k positibo jo zuten.

Droga kontuetan, bestalde, Iruñeko Udaltzaingoa gidariei egindako kontroletan atzemandako **positiboan** % 83,3 kanabisaren substantzia psikoaktibo batek eragin zituen: tetrahidrocannabinola. Positiborik gehien eragiten duen bigarren droga kokaina da, emaitza positiboak izan dituzten proben % 25etan ageri baita. Substantzia hori atzeman zitzaizen gidarien % 88k, gainera, beste estupefaziante batzuk ere hartu zituzten, hala nola anfetaminak, estasia edo opiazeoak. Anfetaminak eta metanfetaminak proba positiboan % 16,6tan agertu ziren; opiotik eratorritakoak, % 5,5etan; eta, droga sintetikoak (MDA, MDMA), % 2,7tan.

Kontrol prebentiboak

Kontrol kopurua	189
Egindako probak, guztira	7.653
Emaitza positiboak	322
Emaitza negatiboak	7.331
Ukoak proba egiteari	1

Arau hausteak medio egindako esku-hartzeak

Egindako probak, guztira	379
Emaitza positiboak	341
Emaitza negatiboak	38
Ukoak proba egiteari	11

Esku-hartzeak, istripuetan

Egindako probak, guztira	563
Emaitza positiboak	106
Emaitza negatiboak	457
Ukoak proba egiteari	3

- Zirkulazio-arauketa berria

Herritarren segurtasuna handitzearren, Iruñeko Udalak semaforo berri bat paratu zuen Azpilagañako Buenaventura Íñiguez kalean Manuel Turrillas plazan sartzeko; halaber, zebrabide bat kendu eta bi pasabide birdiseinatu zituen, hau da, asimetriko egin zituen, ibilgailuen eta oinezkoen arteko distantzia handitze aldera eta, autoek galgatzen dutenean, segurtasuna handitze aldera.

Hona Udaltzaingoa jarduketak, auto-istripuei aurea hartzera bideratuak, bai eta haietan zenbat lan-ordu erabili diren:

Jarduketa	Orduak	Zenbakia
Radarra	2.199	2.141
Agiriak	1.800	39
Eskola garraioa		79
Askotariko arau hausteak	366	193
Etilometriak	380	189
Zirkulazio erregulazioa bide-gurutzeetan	5.883	

- SMS garabiak

2010eko bukaeran, alerta-sistema bat jarri zen abian, ibilgailuen jabeek jakinarazteko garabia-zerbitzuak ibilgailua erretiratu behar zuela. 2012an, SMS bidezko 766 alerta-mezu bidali ziren. Kasuen % 66tan (566 kasutan), herritarrak bere autoa erretiratu zuen, eta 262tan (% 34tan), garabiak eraman zuen.

2012ko bukaeran, Udaleko garabia-zerbitzuaren kudeaketa lizitatzeko pleguak idatzi ziren. Pleguetan ezarritakoak azpimarratzen segitzen du teknologia digitalak eta satelite bidezko geo-posizionamendua erabili behar direla zerbitzua hobetu eta merkatzeko.

Herritarren Segurtasuna

Udal-ordenantzen betetze-maila

2012an, 1.220 salaketa jarri ziren, udal-ordenantzak





2008	2.930
2009	3.277
2010	2.559
2011	1.814
2012	1.220

hausteagatik; aurreko urtean, berriz, 1.814 izan ziren, eta 2010ean, 2.559. Gehienak eremu publikoan txiza egiteagatik jarri ziren (355) eta eremu publikoan desordenak eragiteagatik (264). Gero, substantzia estupefazianteak edukitzeagatik jarritakoak datoz (141). Bestalde, 100 salaketa baino gutxiago jarri ziren zaborrak botatzeagatik, kartelak paratzeagatik edota hiri-altzariak kaltetzeagatik.

Aisiako guneen kontrola

Iruñeko Udaltzaingoak, asteburu guztietan, aisiako guneak kontrolatzeko antolamendua egiten du, auzoei eragindako trabak ahalik eta gutxienak izate aldera. Kontrol horren ondorioz, 148 salaketa jarri ziren ostalaritza-establezimenduen kontra (2011n, aldiz, 122), gehien bat ixteko ordutegia ez betetzeagatik (80) eta baimendutako edukiera gainditzeagatik (16).

Zerbitzu bereziak eta auzoetan patruilatzea

2012an, ikastetxeetako estupefaziante-trafikoari aurrea hartzeko kanpainari segida eman zitzaion, baina apalago. Guztira, 4.340 zaintza-zerbitzu egin ziren ikastetxe inguruetan; aurreko urtean baino % 40 inguru gutxiago. Era berean, 11.444 zaintza-zerbitzu berezi egin ziren hirietako auzoetan delituei aurrea hartzeko; 2011n baino gutxiago, orduan 15.880 zerbitzu egin baitziren.

Delituak eta arau-haustek

Guztira 9.928 delitu eta arau-hauste izan ziren, zertxobait gorantz eginda 2011ren aldean. Delituek zertxobait egin zuten gora, eta arau-hausteek, behera.

Iruñean 2012an gertaturiko delitu ohikoenei dagokienez, aurreko urteetako antzekoak dira.

Ebasketak	584
Tratu txarrak	327
Etxebizitzetan indarrez egindako lapurretak	247
Lokaletan indarrez egindako lapurretak	191
Lapurretak bortxa edota larderia erabiltuta	265
Lesioak	96
Ibilgailu-lapurretak	86

Iruñeko Udaltzaingoak 839 atxiloketa egin zituen 2012an, delituak egiteagatik. Haietatik, % 44,5 (374 atxiloketa), bide-segurtasunaren aurkako ustezko delituengatik. Era berean, guztira, 7.640 identifikazio egin ziren. Azkenik, Udaltzaingoak 527 estupefaziante-atzipen egin zituen. Atzitutako substantzia gehienak marihuana, speed, haxixa eta kokaina izan ziren.

Substantziak	Atzipenak
Marihuana	309
Haxixa	57
Kokaina	23
Speed (Anfetamina)	117
Beste Hainbat	11
Heroina	2
Estasia	2
Ketamina	5
Kokaina Eta Anfetamina	
Speed-Ball (Kokaina Eta Heroina)	
Pilulak	1
Onddoak	

ATZIPEN-AKTAK, GUZTIRA **527**

	2008	2009	2010	2011	2012
Delituak	3.439	3.264	2.989	3.317	3.493
Arau-haustek	6.027	6.200	5.516	6.802	6.435
GUZTIRA	9.466	9.464	8.505	10.119	9.928

Zirkulazioa eta mugikortasuna

Seinaleztapen horizontala eta bertikala

- Kontratua

2009az geroztik, Grupisa Infraestructuras SA (2012ko urtarilaz geroztik, Ferrosar, SA) enpresak esleitua du Iruñeko zirkulazioaren seinaleztapen horizontala eta zutikakoa mantendu eta berria ezartzeko kontratua. Urteko aurrekontua 360.000 euro da (BEZa barne). Kontratuan 25.000 euroko kanon finko bat sartua dago urteko, orientazio-, norabide- eta turismo-seinaleak garbitzeko eta berrezartzeko.

- Jarduketa nagusiak hauek izan ziren:

Gehienezko zirkulazio-abiadura orduko 30 km-ra mugatu zen hiriko 241 kaletan. Iazkoan, Azpilagaña, Beloso, Txantrea, Etxabakoitz, I. Zabalgunea, Ermitagaña, Euntzetxiki, Iturrama, Landaben, Magdalena, Mendebaldea, Mendillorri, Milagrosa, Milutze, Orvina, Arrotxapea, Sadar, Sanduzelai, Donibane eta Santa María la Real auzoetako 241 kaletan mugatu da gehienezko zirkulazio-abiadura orduko 30 km-ra. Aurretik, muga hori II. Zabalguneko kale batzuetan ezarria zegoen, Udalaren Trafiko Ordenantzarekin bat. Muga hori era bertikalean eta horizontalean seinaleztatua dago.

Oinezkoendako Pasabideak sortu eta aldatzea. Bide Seguritasuneko III. Plana betetze aldera, oinezkoendako sei pasabide berri sortu ziren, bi irizpide hauei jarraikiz: batetik, beharra dagoen tokian sortzea, eta, bestetik, pasabideen artean gehienez ere 100 metroko tartea izatea. Halaber, bi pasabide aldatu ziren, irisgarritasunari buruzko araudia betetzeko. Ondokoak:

- Maeztu pintorearen kalea, 6
- San Joan Bosco k. (Rinaldi multzoa)
- Landabengo industrialdea C/D (TRW irteera)
- Iturrama kalea, 28
- Jesús Guridi k., 1
- Media Luna k., 33 (Sagrado Corazón Ikastetxea)
- Eneko Aritza/Pedro I.a k., (Aldaketa eta Erdibitzaillean oinezkoen babesgune bat sortzea)
- Pedro I.a /Eneko Aritza k., (Aldaketa)

Oinezkoendako Pasabide Asimetrikoak. Ohiko 26 pasabide oinezkoendako pasabide asimetriko bihurtu dira, zintarriaren beharpenari dagokionez, oinezkoarengan segurtasun handiagoa sortze aldera.

Kalea	Zk. / Bidegurutzea
Julián Gayarre k.	16 (Osasun Etxea)
Maeztu Pintorea	6
San Joan Bosco	5 (Rinaldi multzoa)
Leire k.	15
Landaben Industrialdea C/D	Trw
Eneko Aritza K. Pedro I.Aren K. (Tecnisuelos)	
Pedro I.Aren K. Eneko Aritza K. (Chill out sofak)	
Biurdana	22
Iturrama	28 eta 37
Bergamin	Arrieta
Jesus Guridi	1
Acella	Antso Ramirez
Antso Ramirez	Azella
Antso Ramirez	Barañango Etorb.
Arga Ibaia	4
Milagro	6
Milagro	14
Sadar	Nafarroako Erresuma Pab. 1. izk.
Sadar	Nafarroako Erresuma Pab. 2. izk.
San Kristobal	Villafranca
San Kristobal	"Atlantida" sarrera, Munduko Parkea
Sadar	8 (Aranguren Ibarra)
Media Luna	43 (Sagrado Corazón Ikastetxea)
Katalunia Etorb.	Blas de Laserna (NUP)
Katalunia Etorb.	NUP (Taxiak)
Sadar	Sario Sarbidea

Kuxin Berlindarrak eta Abiadura Moteltzeko Zerrendak. Hiriko hiru tokitan zortzi kuxin berlindar ezarri ziren ibilgailuen abiadura moteltzeko:

- Bergamin k. (Jesuiten Ikastetxerako sarbidea) 1+1
- Orkoien k. (La Granja Instituturako sarbidea) 1+1
- Sadar k., (NUPeko El Sario eraikinerako sarbidea) 2+2





Ezkerretarako biraketak kentzea. 2012an, errotonda berri bat egin zen Landabengo industrialdeko D-E kaleen elkargunean. Jarduketa Bide Segurtasuneko III. Planaren baitan egin zen, toki arriskutsuak ezabatzeko atalean. Proposamen horretan esaten da ezkerretarako biraketa guztiak ezabatu behar direla, bi norabideko zirkulazioa dagoen kaleetan, holako tokietan oso larritzat jotzen diren istripu kopuru handia gertatzen delako.

Bidegurutze horretan, 20.000 ibilgailu ibiltzen dira eguneko, eta norabide bakoitzean bi errei daude (C/E); errepide horretara beste errepide bat iristen da, norabide bakoitzean errei bat duena (C/D). Egunean 2.900 biraketa egiten dira ezkerretara C/D-tik C/E-ra. Horrek egoera oso arriskutsuak eragiten ditu eta, gainera, holako biraketak tamaina handiko ibilgailuek egiten dituzte, hau da, industrialdeetan ibili ogi diren kamioiek eta autobusek. Jarduketa horri esker, gainera, Landabengo Industrialdearen barruko komunikazioak hobetu dira, bertako merkataritza-jarduera erraztuz.

Motozikletendako aparkalekuak izkinetan eta oinezkoendako pasabideen zein garajeen irteeren aurretik. 2012an, motozikletak aparkatzeko 200 leku berri ezarri ziren, hiriko 32 aparkalekutan banatuak. Neurri horri esker gidarien ikusgaitasuna hobetu da eta, aldi berean, motoak aparkatzeko lekuak sortu dira.

Zama-lanetarako eremuak. 2012an, zama-lanetarako sei eremu berri ezarri ziren, ondoko tokietan:

Ventura Rodríguez, 69

Kale Nagusia

Kale Berria

Sarriguren kontzejuaren k., 15

Joaquín Beunza k., 13

Nafarroako Monasterioen plaza, 2

Jarduketa berezia II. Zabalgunean Aparkatze Arautuko lekuak ugaritzeko. Okupazio-azterlan bat egin ondoren, zama-lanetarako 71 leku ezabatu ziren, eta aparkatze arautuko leku iraunkorrak izatera pasatu ziren. Horiei beste 30 leku gehitu behar zaizkie, arratsaldeetan, 17:00etatik 20:00etara.

Aparkatze Arautuko Alde Gorria RENFEko geltokiko aparkalekuan ezartzea. RENFEko geltokiko aparkalekua txikia da eta era librean erabil daiteke. Hori dela eta, puntako orduetan ibilgailuz gainezka egoten zen (batez ere, Madrildik egunero datozen lau trenak iristean). Ibilgailuak gaizki aparkatzen ziren eta taxien sarrera eta irteera eragozten zituzten.

Halakorik ez gertatzeko, 2012an, bigarren taxi-erreia ezarri zen. Orain, gehienez 32 taxirendako tokia dago bertan itxaroten egoteko. Erreien luzera ere handitu zen eta, aldi berean, taxien burualdea aparkalekuko irteeratik hurbilago paratu zen. Horrez gain, alde gorriko 30 leku era iraunkorrean seinaleztatu ziren (24 orduetan eta urteko 365 egunetan), non erabiltzaile guztiak (auzokide egoiliarak, barne) aparkatze-txartela atera behar baitute, gehienez ere 2 orduz aparkatzeko. Jarduketari buru emateko, seinaleztapen bertikala eta horizontala berritu eta hobetu zen aparkalekuaren sarbideetan eta ondoan dagoen Eskualdeko Hiri garraioaren geltokian.

Aparkatzeko lekuak minusbaliatu fisikoentzat. Hiri osoan 29 leku berri sortu ziren minusbaliatuentzat.

Geltokiak Eskualdeko Hiri Garraiorako. 12 geltoki ezarri eta moldatu ziren Eskualdeko Hiri Garraiorako.

Alokairuko ibilgailu elektrikoa (car sharing Navarra).

Bi gune ezarri ziren alokairuko ibilgailu elektrikoentzat, guztira lau leku:

- Merindadeen plazan (2 leku)

- Pio XII.aren etorbidea (2 leku)

Enpresa-autobuserako erreserbatua. Landabengo Industrialdearen C/E kaleetan, enpresa-autobuserako geltoki erreserbatu bat ezarri zen (TRVV irteera).

Bideoz zaindutako aparkalekua bizikletetarako. 2012an, bideoz zaindutako 438 leku ezarri ziren bizikletak aparkatzeko, hiriko 10 gunetan, erabiltzaileek bizikleta konfiantza handiagoz utz dezaten hirian bizikletaz gehien ibiltzen den tokietan.

Bideozaintza berezia duten eremuak dira eta seinaleztapen bertikalaren bidez adierazita daude; unean-uneo zaintzaz gain, irudiak grabatzen dira, eta hori lagungarria da bizikletak lapurtzen badira edo haietan kalteak eragiten badira.

Hona hemen non dauden aparkaleku horiek:

Kokapena	Leku-kopurua
Gazteluko Plaza	30
Tomás Caballero Parkea (Eraikin Adimenstuen aurrean)	36
Entzutegia (Entzutegi plaza)	30
Zezen-Plaza (Arrieta-Erriberri)	24
Karlos III.a (Hegoa) - Merindadeen Plaza	12
Orreaga Etorb. - Entzierro monumentutik hurbil	36
Tutera-Gartzia Ximenez	48
San Ignazio Etorb. - Sarasate pasealekurako irteera	108
Compañía Plaza (Hizkuntza Eskola Ofiziala)	54
Acuavox San Agustín zentroa (San Agustín-Merced pasadizoa)	60

eBizikleta Erregistroa, BICITRONICekin kontratatua. 2012ko martxoan, Iruñeko Udalak bizikletak identifikatzeko sistema bat jarri zuen abian lapurretak eragozteko xede hartuta. Hilabete horretan berean, informazioa emateko jardunaldi bat antolatu zen eta, parte-hartzaileen artean, hogeitak bost identifikagailu zozketatu ziren. Maiatzean, bide-segurtasuna eta bizikletari buruzko eztabaida-saio bat egin zen mahai inguru batean, zeinean jendearen proposamenak jaso baitziren.

Udaleko Trafiko Ordenantzaren 29. artikularekin bat, gainera, Herritarren Segurtasun Alorrak Bizikleta Erregistro bat sortu zuen, espalo seinaleztatueta, parkeetan, pasealekuetan eta oinezkoendako eremuetan ibili nahi duten bizikletentzat. Erregistroan inskribatzeak matrikula bat eskuratzea ekarriko du berekin, eta horrek aipatu eremuetan ibiltzeko ahalmena emanen du. Erregistroan inskribatze aldera,

erantzukizun zibileko aseguru baten jabe izan behar da, erregistroa sortzeko ebazpenean biltzen diren baldintzak beteta. Bigarren puntu hori oraindik ez da hirian aplikatu. Bizikletak saldu eta konpontzeko hiriko establezimendu gehienetan eman daiteke izena erregistro horretarako.

Beste hainbat jarduketa

Izandako greben ondorioz, seinaleztapena garbitu eta birjartzea; Sanferminetako seinaleztapen berezia; galtzada-inbaditzaileak eta *new jersey* erako hesiak paratu eta kentzea, aldi baterako zirkulazio-egoeretarako; ispiluak paratzeko baimenak ematea, garaje partikularretako irteeretan ikusgaitasuna hobetzeko, eta Ikastetxeetan Eskola Autobusetarako seinaleztapen bertikala eta horizontala berritzea.

Semaforo-instalazioak eta CCTVren kamerak jarri eta zaintzea Kontratua

2012an, Indra Sistemas enpresak hartu zuen hiriko zirkulazioa erregulatzeko instalazioak zaindu, mantendu, konpondu, aldatu, hornitu, muntatu eta jartzeko lanen esleipena, eta laguntza teknikoaz ere arduratzen da. Kontratua Tokiko Gobernu Batzarrak esleitu zuen 2011ko abenduan. Kontratuaren iraupena urtebeterako izan zen (2012) eta hiru aldiz luzatzen ahalgo da urtebetez. Aurrekontua 896.542 eurokoa da.

Jarduketa nagusiak hauek izan ziren

Komunikazio-nodo berria. Komunikazio-nodo berri bat jarri zen Atarrabiako etorbidearen eta San Kristobal kalearen artean (Txantrea); inguru hartako semaforo-bidegurutzeak zentralizatu ziren eta, aipatu nodoan, CCTV kamerak ezarri ziren.

Semaforo-instalazioak. Hiru instalazio berri ezarri ziren ondoko tokietan: Amaia kalean (Orreaga etorbidearen parean) eta Sarrigurengo errepidean 1-9 -bi kasuetan, oinezkoendako pasabidean semaforoak paratu ziren-, eta Zaragozako etorbidearen eta Azpilagañako ingurabidearen arteko bidegurutzean.





Horrez gain, hiru semaforo-aldaketa ere egin ziren, oinezkoendako pasabideetan: Sarrigurengo errepidearen eta Nafarroa Behereko etorbidearen elkargunean; Nafarroa Behereko etorbidearen eta Eguesibar kalearen elkargunean, eta Magdalena kalearen eta Vergel kalearen artekoan.

Probak. Espainiako Txirrindularitza Itzuliaren karira, *Larrialdietarako Semaforo Plan Zentralizatua* jarri zen abian, larrialdian uhin berde iraunkorreko pasabide aldakorak sortzen dituen. Horrek anbulantziak igarotzea ahalbidetzen du dela hondamendi baten kasuan, dela kirol-ekitaldietan, dela agintarien segizioetan, etab.ean.

Era berean, era pilotu gisan, *Autobusen Lehenetsunezko Sistema* probatu zen, Arostegui etorbideko hurrenez hurreneko bi bidegurutzetan (Inquinasa eta Venta Andrés); villavesa batean ekipoa sartu zen haren funtzionamendua ikusteko. Sistema ona bada ere, eta autobusei abiadura komertziala irabazteko aukera emanik ere, oinezkoengan nahasmendua sortzen du, oinezkoendako semaforoaren atzera-kontua eten egiten baita. Bestalde, beste bide batzuetan gorabeherak sor ditzake. Beraz, behin funtzionamendua ikusita, instalazioa kendu zen.

Eraispen konponduak. Hirian, hirugarrenek eragindako istripuen ondorioz eraitsitako semaforoak eta semaforo-instalazioetan eragindako matxurak konpondu ziren; 160 konponketa, guztira.

CCTC kamerak. CCTV kamera berriak tokiotan jarri ziren:

- Lezkairu (igogailu barnean)
- Monjardín kalea-Eguesibar kalea (igogailurako sarbideetan) Segurtasuna eta Trafikoa
- Eguesibar kalea-Fuente de la Teja kalea (igogailuetarako sarbideak) Segurtasuna eta Trafikoa
- Yanguas y Miranda kalea. Denbora-kontrola Autobus Geltokiko bidaiari-geralekurako Zirkulazioa
- Mendillorri. Mendillorri Ipko patioa. Segurtasuna
- Magdalena auzoa. Segurtasuna

- Gazteluko plaza: bizikletak aparkatzeko euskarriak, bideoz zainduak
- Gartzia Ximenez kalea - Tuter kalea: bizikletak aparkatzeko euskarriak, bideoz zainduak
- Arrieta kalea - Erriberri kalea: bizikletak aparkatzeko euskarriak, bideoz zainduak
- Sarasate pasealekua, Parlamentuaren aurrean. Segurtasuna eta Trafikoa
- Atarrabiako etorbidea - San Kristobal kalea. Zirkulazioa
- San Kristobal kalea - Magdalena kalea. Zirkulazioa
- Sanduzelai plaza. Segurtasuna
- Nafarroa Behereko etorbidea - Sanduzelai kalea. Segurtasuna eta Trafikoa

Aparkatze arautua. Iruñeko Udalak 11.994 leku arautu ditu txandakatze-aparkalekuetan, eta horietatik, 4.788 leku 1. eta 2. sektoreetakoak dira, eta 7.206, 3. eta 4. sektoreetakoak. 2012an, 15.248 bizilagun-txartel eta 113 jardueratxartel egin ziren hirian ezarrita dauden sektoreetarako.

Bizilagun-txartelak

Sektoreak	Txartel kopurua
1. sektorea	2.126
2. sektorea	4.759
3. sektorea	1.655
4. sektorea	6.708
GUZTIRA	15.248

Jarduera Txartelak

Sektoreak	Txartel kopurua
1. sektorea	0
2. sektorea	7
3. sektorea	2
4. sektorea	103
GUZTIRA	113